

Lasarte-Oriako Udala

***IRAUNKORTASUNERAKO
EKINTZA-PLANA***

Lasarte-Oria, 2006ko maiatza

AURKIBIDEA

1.- SARRERA	2
2.- ILDO ESTRATEGIKOEN HASIERAKO PROPOSAMENA	3
3.- EKINTZEN HASIERAKO PROPOSAMENA	16
1. ILDO ESTRATEGIKOA	
Lurraldearen eta etxebizitzaren antolamendu iraunkorra	17
2. ILDO ESTRATEGIKOA	
Hiri barruko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea	17
3. ILDO ESTRATEGIKOA	
Uraren eta hondakinen kudeaketa iraunkorra.....	18
4. ILDO ESTRATEGIKOA	
Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea.....	18
5. ILDO ESTRATEGIKOA	
Jardueren kontrola hobetzea eta kutsaduraren eta zarataren kontra borrokatzea	18
6. ILDO ESTRATEGIKOA	
Osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-babeseko programak bultzatzea	19
7. ILDO ESTRATEGIKOA	
Enplegua sustatzea eta dibertsifikazio ekonomikoa	19
8. ILDO ESTRATEGIKOA	
Kultura eta kirola sendotzea eta sustatzea.....	20
9. ILDO ESTRATEGIKOA	
Herritarren segurtasuna hobetzea eta babesa larrialdietan	20
10. ILDO ESTRATEGIKOA	
Hizkuntza-normalizazioa bultzatzea	20
11. ILDO ESTRATEGIKOA	
Komunikazio-kanalak hobetzea, asoziazionismoa bultzatzea eta ingurumen- hezkuntza sustatzea.....	21
12. ILDO ESTRATEGIKOA	
Udal-zerbitzuen kudeaketa iraunkorrerako bidean	22
4.- EKINTZEN EZAUGARRIAK	23

1.- SARRERA

Behin Iraunkortasun Diagnostikoa eginda eta berrikusita, eta herritarrei horri buruz duten iritzia galdetuta, beste aurrerapauso bat emateko garaia da. *Iraunkortasunerako Ekintza Plan* bat diseinatu behar da, hobekuntza jarduera oso zehatzak dituen programa bat; eta jarduera zehatz horiek epe motzera, ertainera eta luzera garatu beharko dira, bakoitzaren garrantziaren eta zailtasunaren arabera. Beraz, lehenengo egitekoa *Iraunkortasunerako Ekintza Planaren* ildo estrategikoak zehaztea da; hau da, plan horretako jarduera proposamenen oinarri izango diren lan ardatz nagusiak zehaztea.

Ildo estrategiko horietako bakoitzaren helburuak definitu ondoren, egin beharreko jarduerak zehaztu behar dira: jarduera horiek gauzatzeko aurrekontuak zehaztu, eta, horrez gain, aurreikusitako aldaketak gauzatzeko beharrezkoenak diren jarduerari lehentasuna eman.

Azken batean, nolako udalerrria nahi den zehaztea da kontua; hori dela-eta, lortu beharreko iraunkortasun mugak finkatu, ildo estrategikoak zehaztu eta helburua lortzeko beharrezkoak diren jarduerak eta etapak ezarriko dira.

Beste udalerrri batzuk tokian tokiko iraunkortasun prozesuetan murgilduta daude, eta, beraz, Lasarte-Oria sortuko diren antzeko erronkei eta arazoei aurre egin behar izan diete. Hori dela-eta, komeni da udalerrri horien esperientziari hurbiletik jarraitzea, horien laguntza oso garrantzitsua izan baitateke okerreko bidetik ez joateko.

Ekintza Planaren estruktura



2.- ILDO ESTRATEGIKOEN HASIERAKO PROPOSAMENA

Hurrengo lerroetan, ORTZADAR SLko zerbitzu teknikoek proposatutako ildo estrategikoak azalduko dira. Aukeratutako gai ardatz bakoitzean, hori aplikatzean lortu nahi diren iraunkortasun irizpide orokorrak zehazteaz gain, eredu moduan, hainbat programa azalduko dira; programa horietan sartu beharko dira aurrez zehaztutako helburuak lortzeko jarduerak.

Egokitzat jo da 14 ildo estrategiko proposatzea (ikus taula). Ildo estrategiko horiek hainbat jarduera eremutan eragiten dute; besteak beste, lurraldearen antolamenduan, natur baliabideen babesean, hiri mugikortasunaren hobekuntzan, kutsaduraren prebentzioan, enplegu sustapenean, euskararen erabileraren normalizazioan eta kultur eskaintzaren hobekuntzan.

zk.	Izenburua
1	Lurraldearen eta etxebizitzaren antolamendu iraunkorra.
2	Hiri barruko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea.
3	Uraren eta hondakinen kudeaketa iraunkorra.
4	Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea.
5	Jardueren kontrola hobetzea eta kutsaduraren eta zarataren kontra borrokatzea.
6	Osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-babeseko programak bultzatzea.
7	Enplegua sustatzea eta dibertsifikazio ekonomikoa.
8	Kultura eta kirola sendotzea eta sustatzea.
9	Herritarren segurtasuna hobetzea eta babesa larrialdietan.
10	Hizkuntza-normalizazioa bultzatzea.
11	Komunikazio-kanalak hobetzea, asoziazionismoa bultzatzea eta ingurumen-hezkuntza sustatzea.
12	Udal-zerbitzuen kudeaketa iraunkorrerako bidean.

Hurrengo orrialdeetan, goian aipatutako ildo estrategikoen iraunkortasun helburuak zehaztuko dira, eta, horrez gain, bakoitza aurrera eramateko aukeratutako jarduera programak zeintzuk diren adieraziko da.

1. ildo estrategikoa

Lurraldearen eta etxebizitzaren antolamendu iraunkorra

Iraunkortasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Hiri-plangintzari buruzko informazio publikoa sustatzea. ○ Udal-mugak berrikustea. ○ Etxebizitza izatea errazteko lan egitea. ○ Hornikuntzak eta aisiarako eremuak hobetzea. 	<p>1. PROGRAMA LURZORUAREN ANTOLAMENDUA</p> <p>2. PROGRAMA ETXEBIZITZEN SUSTAPENA</p> <p>3. PROGRAMA HIRI-INGURUNEA HOBETZEA ETA EREMU ANDEATUAK LEHENERATZEA</p>

2. ildo estrategikoa

Hiri barruko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea

Iraunkotasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Istripuak eta trafiko itoa prebenitzea. ○ Oinez eta bizikletan dabiltzanei babesa eman eta mesede egitea. ○ Garraiobide ez hain kutsakorrei mesede egitea. ○ Irisgarritasuna sustatzea zerbitzu eta espazio publikoetan. 	<p>4. PROGRAMA</p> <p>ZIRKULAZIOAN ETA APARKAMENDUAN ERAGITEA</p> <p>5. PROGRAMA</p> <p>GARRAIO PUBLIKOARI LAGUNTZEA</p> <p>6. PROGRAMA</p> <p>ORDEZKO GARRAIOBIDEAK BULTZATZEA</p> <p>7. PROGRAMA</p> <p>IRISGARRITASUNA INGURUNE FISIKORA ZABALTZEA</p>

3. ildo estrategikoa

Uraren eta hondakinen kudeaketa iraunkorra

Iraunkortasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Saneamendu-sarea osatzea eta ibai-ibilguetako uraren kalitatea hobetzea ○ Etxeko hondakinen kopurua txikitzea eta kontsumo arduratsua sustatzea. ○ Hondakinen kudeaketan sakontzea, jardueraren eremu guztietan (industria, merkataritza, lehen sektorea...) 	<p>8. PROGRAMA</p> <p>SANEAMENDUAN AURRERA EGITEA</p> <p>9. PROGRAMA</p> <p>ETXEETAKO ETA SALTOKIETAKO HONDAKINEN GAIKAKO BILKETAREN KUDEAKETA HOBETZEA</p>

4. ildo estrategikoa

Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea

Iraunkortasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none">○ Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea eremu guztietan (etxea, industria, saltokiak, lehen sektorea, administrazioa, zentro publikoak...)	<p>10. PROGRAMA</p> <p>ENERGIA-ZIURTAPENAK SUSTATZEA, ETA ARGITERIA PUBLIKOA ETA UDAL- BULEGOETAKO ENERGIA- PRESTAZIOAK HOBETZEA</p>

5. ildo estrategikoa

Jardueren kontrola hobetzea eta kutsaduraren eta zarataren kontra borrokatzea

Iraunkortasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Aireko eta lurreko zarata eta kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea. ○ Indarrean dagoen ingurumen-legeria betetzen dela bermatzea. 	<p>11. PROGRAMA</p> <p>JARDUERA KUTSAGARRIAK ETA ARRISKUKO JARDUERAK KONTROLATZEA</p> <p>12. PROGRAMA</p> <p>KUTSADURA AKUSTIKOA TXIKITZEKO NEURRIAK EZARTZEA</p>

6. ildo estrategikoa

Osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-babeseko programak handitzea

Iraunkortasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Biztanle guztiei oinarrizko zerbitzu guztiak bermatzea. ○ Gizarte-kohesioa eta -justizia handitzeko lan egitea. ○ Baztertzeak, gizarte-esklusioa eta mehatxuak zaintzea. ○ Garatu gabeko guneekiko elkartasuna sustatzea. 	<p>13. PROGRAMA HEZKUNTZA-SISTEMAN ERAGITEA</p> <p>14. PROGRAMA OSASUN-ARRETA HOBETZEA</p> <p>15. PROGRAMA GIZARTE-ERANTZUNA ZABALTZEA</p> <p>16. PROGRAMA GIZARTE-EGOERA AHULENEKO GIZARTEEKIN LANKIDETZAN ARITZEA</p>

7. ildo estrategikoa

Enplegua sustatzea eta dibertsifikazio ekonomikoa

Iraunkortasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Herriko dibertsifikazio ekonomikoari laguntzea. ○ Lanpostu duina lortzen laguntzea. ○ Gizarte-egoera ahulenean daudenak laneratzeko lan egitea. 	<p>17. PROGRAMA SALTOKIEI LAGUNTZEA</p> <p>18. PROGRAMA ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEA</p>

8. ildo estrategikoa

Kultura eta kirola sendotzea eta sustatzea

Iraunkortasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Kultura sustatzea. ○ Udalerriko kultura-jarduerak eta -egitura dinamizatzea. ○ Kirolarekin lotutako aztura osasuntsuak bultzatzea. 	<p>19. PROGRAMA</p> <p>KULTURA-HORNIDUREN ETA -PROGRAMEN OSAGARRIA</p> <p>20. PROGRAMA</p> <p>KIROL-HORNIDURAK EGOKITZEA</p>

9. ildo estrategikoa

Herritarren segurtasuna hobetzea eta babesa larrialdietan

Iraunkortasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Hiritarren segurtasunari dagokionez udal-arreta hobetzea. ○ Arrisku naturalak eta teknologikoak prebenitzeko eta horiei arreta emateko tresnak erabiltzea. 	<p>21. PROGRAMA</p> <p>HIRITARREN SEGURTASUNA OPTIMIZATZEKO TRESNAK EZARTZEA</p> <p>22. PROGRAMA</p> <p>LARRIALDI-EGOERETAN BABESA HOBETZEA</p>

10. ildo estrategikoa

Hizkuntza-normalizazioa bultzatzea

Iraunkortasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Biztanle guztien hizkuntza- eskubidea bermatzea. ○ Udalaren eguneroko zereginetan hizkuntza-irizpideak sartzea. ○ Euskara ikasteko eta erabiltzeko lan egitea. 	<p style="text-align: center;">23. PROGRAMA EUSKARA SUSTATZEA</p>

11. ildo estrategikoa

Komunikazio-kanalak hobetzea, asoziazionismoa bultzatzea eta ingurumen-hezkuntza sustatzea

Iraunkortasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Hiritarrekiko komunikazioa hobetzea eta lankidetzatza bultzatzea. ○ Hiriko kalitatea hobetzeko norberaren kontzientziatza bultzatzea. ○ Iraunkortasunarekin lotutako kontzeptuak zabaltzea. ○ Udalerria ingurumen-hezkuntzarako bitarteko bihurtzen duten alderdiak sustatzea. 	<p>24. PROGRAMA</p> <p>UDALERRIKO GAI INTERESGARRIAK ZABALTZEA</p> <p>25. PROGRAMA</p> <p>ASOZIAZIONISMOA BULTZATZEA</p> <p>26. PROGRAMA</p> <p>INGURUMEN-HEZKUNTZAKO ESKAINTZA FINKATZEA</p>

12. ildo estrategikoa

Udal-zerbitzuen kudeaketa iraunkorrerako bidean

Iraunkortasun-helburuak	Jarduera-programak
<ul style="list-style-type: none">○ Ingurumen-kudeaketako tresnak bultzatzea administrazioan.	<p>27. PROGRAMA</p> <p>UDAL-KUDEAKETAKO TRESNA BERRIAK</p>

3.- EKINTZEN HASIERAKO PROPOSAMENA

Hurrengo orrietan, hurrengo urteetan Lasarte-Orian inplementatu nahi ditugun ekintzak ageri dira. Ekintzak lau pabost urterako proposatzen dira, eta ondoren, komenigarria litzateke berriro ere ebaluazioa egitea eta helburuak eta egin beharreko ekintzak birplanteatzea.

Ekintzak zazpi multzo handitan bil daitezke, izaeraren arabera. Honelako ekintzak bereiz daitezke:

- sentsibilizaziokoak; jasangarritasun-kontzeptuak eta guztiok batera eta koordinatuta aritzeko beharra zabaltzeko eta kontzeptu horiek aintzat hartuta hezteko.
- araudia sartzekoak edo aldatzekoak; erabilerak eta jarduerak arautzeko eta araudia eguneratzeko.
- aldaketa-ekintzei eta -jarrerei mesede egiteko pizgarri ekonomikoak islatzen dituztenak.
- hornidurak eta azpiegiturak egokitzekoak.
- udaleko errealitatearen alderdian iraunkortasun-irizpideak sartzekoak.
- azterketak eta planak proposatzen dituztenak; zenbait alderdian eragina izan nahi dugula aintzat hartuta, alderdi horiek hobeto ezagutzeko.
- kudeaketakoak; esate baterako, ingurumen-kontrolakoak, izapide-prozedurakoak eta udalaz gaindiko esparruetan jarduerak egitea eskatzekoak.

1. ildo estrategikoa

Lurraldearen eta etxebizitzaren antolamendu iraunkorra

P1. LURZORUAREN ANTOLAMENDUA

1. Hirigintzako planei buruzko informazio gehiago.
2. Inguruko udalekin udalerraren mugak negoziatzea, bereziki Donostia eta Usurbilekin.

P2. ETXEBIZITZEN SUSTAPENA

3. BOE-etarako lurrak aprobetxatzea.
4. Etxebizitza hutsak alokatzeko programak —BIZIGUNE, esate baterako— zabaltzea eta etxebizitza hutsen okupazioa edo alokairua sustatzea.

P3. HIRI-INGURUNEA HOBETzea ETA EREMU ANDEATUAK LEHENERATzea

5. Berdeguneetarako azalera handitzea eta zaintzea.
6. Oriaren ibaiertzeko pasealekua amaitzea.

2. ildo estrategikoa

Hiri barruko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea

P4. ZIRKULAZIOAN ETA APARKAMENDUAN ERAGITEA

7. Zirkulazioaren azterketa egitea.
8. Txandakako aparkamendua probatzeko saiakera egitea.

P5. GARRAIO PUBLIKOARI LAGUNTzea

9. Hainbat motatako garraio publikoa bultzatzea

P6. ORDEZKO GARRAIOBIDEAK BULTZATzea

10. Bidegorriak jarriko diren aztertzea.
11. Bizikletaren erabilera eta bide-hezkuntza sustatzea.

P7. IRISGARRITASUNA INGURUNE FISIKORA ZABALTzea

12. Gizarte Zerbitzuetako eraikinetako irisgarritasuna hobetzea.
13. Igogailuak jartzeko baimenak errazago bideratzea.
14. Hainbat urtetan irisgarritasun-plana gauzatzen jarraitzea.

3. ildo estrategikoa

Uraren eta hondakinen kudeaketa iraunkorra

P8. SANEAMENDUAN AURRERA EGITEA

15. Hondakin-urak biltzeko hodiaren eraikuntza azkartzea.

P9. ETXEETAKO ETA SALTOKIETAKO HONDAKINEN GAIKAKO BILKETAREN KUDEAKETA HOBETZEA

16. Birziklapena bultzatzea, ez etxeetakoa bakarrik, baita taberna eta saltokietakoa ere. Zaintza eta zigorrak.
17. Zabor organikoaren gaikako bilketa bultzatzea eta behar bezala kudeatzea.

4. ildo estrategikoa

Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea

P10. ENERGIA-ZIURTAPENAK SUSTATZEA, ETA ARGITERIA PUBLIKOA ETA UDAL-BULEGOETAKO ENERGIA-PRESTAZIOAK HOBETZEA

18. Etxebizitzen sustapen berrietan energia-ziurtapenak egiten jarraitzea.
19. Udal-bulegoetako eta argiteria publikoko energia ikuskatzea. Neurri zuzentzaileak hartzea.

5. ildo estrategikoa

Jardueren kontrola hobetzea eta kutsaduraren eta zarataren kontra borrokatzea

P11. JARDUERA KUTSAGARRIAK ETA ARRISKUKO JARDUERAK KONTROLATZEA

20. Lurzoru kutsatuak aztertzeko eta leheneratzeko hitzarmenarekin jarraitzea.
21. Airearen kalitatea neurtzeko estazio bat jartzeko eskatzea Eusko Jaurlaritzari.

P12. KUTSADURA AKUSTIKOA TXIKITZEKO NEURRIAK EZARTZEA

22. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea neurri zuzentzaileak ezar ditzala N-1 errepideko zarata txikitzeko.
23. Kutsadura akustikoari buruzko azterketarekin jarraitzea.

6. ildo estrategikoa

Osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-babeseko programak handitzea

P13. HEZKUNTZA-SISTEMAN ERAGITEA

- 24. 0-3 urteko eskola doakoa izan dadin lan egitea.
- 25. Balioen heziketa sustatzea.

P14. OSASUN-ARRETA HOBETZEA

- 26. Guardiako farmazia aste osoan edukitzea egunez eta gauez, eta larrialdien zerbitzua aste osora zabaltzea, bai egunez, bai gauez.

P15. GIZARTE-ERANTZUNA ZABALTZEA

- 27. Gizarte-egoera ahuleko taldeei laguntza handiagoa ematea

P16. GIZARTE-EGOERA AHULENEKO GIZARTEEKIN LANKIDETZAN ARITZEA

- 28. Nazioarteko lankidetzan jarduten duten tokiko taldeen berri zabaltzea eta haiei laguntza ematea.

7. ildo estrategikoa

Enplegua sustatzea eta dibertsifikazio ekonomikoa

P17. MERKATARITZARI LAGUNTZEA

- 29. Tokiko merkataritza bultzatzea, PERCO garatuta.
- 30. Saltoki txikiak bultzatzea: oinezkoentzako kaleak egitea, aparkatzeko erraztasunak ematea.

P18. ENPLEGUA SORTZEN LAGUNTZEA

- 31. Postu publikoetan gardentasun handiagoa egotea, eta postu horietan elebitasuna sustatzea.

8. ildo estrategikoa

Kultura eta kirola sendotzea eta sustatzea

P19. KULTURA-HORNIDUREN ETA -PROGRAMEN OSAGARRIA

32. Erakusketa-areto berri baten premia dago, oraingoa ez baitago egoera onean.
33. Jendearen partaidetza sustatzea herriko zaindariaren jaiak diseinatzen.
34. Euskal kultura gehiago sustatzea.
35. Memoria historikoa berreskuratzea.

P20. KIROL-HORNIDURAK EGOKITZEA

36. Kirodegiko egutegia luzatzea eta instalazioak eta hornidurak hobetzea.
37. Eskola-kiroleko eta kirol-ludoteketako programen alde egitea.

9. ildo estrategikoa

Herritarren segurtasuna hobetzea eta babesa larrialdietan

P21. HIRITARREN SEGURTASUNA OPTIMIZATZEKO TRESNAK EZARTZEA

38. Udaltzaingoaren zerbitzua hobetzea.
39. Udaltzaingoarentzako dependentzia egokiak sortzea.

P22. LARRIALDI-EGOERETAN BABESA HOBETZEA

40. Ubideetako gainezkabideak garbi edukitzea.

10. ildo estrategikoa

Hizkuntza-normalizazioa bultzatzea

P23. EUSKARA SUSTATZEA

41. Euskararen erabilera sustatzea udalerriko eremu guztietan
42. Hizkuntza-irizpideak ezartzea zerbitzuak kontratatzeko.
43. Lankidetzeta-hitzarmenak sinatzea euskararen erabilera sustatzeko.

11. ildo estrategikoa

Komunikazio-kanalak hobetzea, asoziazionismoa bultzatzea eta ingurumen-hezkuntza sustatzea

P24. UDALERRIKO GAI INTERESGARRIAK ZABALTZEA

44. Gizarte Zerbitzuen Sailak zer zerbitzu ematen dituen ezagutaraztea herritarrei.
45. Hiri-izurrien informazio-kanpaina.
46. Udalak ziurtatu behar du herritarrei iritsiko zaiela informazio garrantzitsua.

P25. ASOZIAZIONISMOA BULTZATZEA

47. Asoziazionismoa bultzatzea.
48. Toki publikoak sustatzea elkarrekin erabiltzeko.

P26. INGURUMEN-HEZKUNTZAKO ESKAINTZA FINKATZEA

49. Eskolako Agenda 21 sustatzea.
50. Ura aurrezten erakustea.
51. Energia berriztagarriak ezartzeko laguntzen berri ematea eta energia aurrezten erakustea.
52. Hiri-hondakin solidoen arazoari buruzko sentsibilizazio-kanpaina gehiago egitea.

12. ildo estrategikoa

Udal-zerbitzuen kudeaketa iraunkorrerako bidean

P27. UDAL-KUDEAKETAKO TRESNA BERRIAK

53. EKOSKAN bat egitea udaletxean eta gainerako udal-instalazioetan.

4.- EKINTZEN EZAUGARRIAK

Hurrengo fitxetan Lasarte-Oriako Iraunkortasunerako Ekintza Planaren ekintzak zehaztu ditugu. Taulen estruktura hobeto ulertzeko, jarraian ekintzak sailkatzeko eta euren jarraipena egin ahal izateko finkatu diren mekanismoen kontzeptuak argitzen saiatuko gara.

Kodea	Ildo estrategikoa (lehen digitua), programa (bigarren digitua) eta ekintzak Ekintza Planaren barruan duen ordena (hirugarren digitua) zehazten duen zenbakia da.
Izenburua	Ekintza edo proiektuaren izendapena da.
Ildo estrategikoa	Ekintzarena da.
Programa	Ekintzarena da.
Deskribapena	Hemen, ekintzaren deskribapena ematen da, bere esanahia, egiteko arazoak,...
Lehentasuna	Handia, erdia edo txikia izango da, ekintzak duen interesa edo garrantzia azpimarratzeko.
Gauzatzeko edo ezartzeko epea	Txikia (0-1 urte), ertaina (1-3 urte) edo luzea (3-5 urte) izango da, ekintza gauzatzeko behar denbora azpimarratzeko
Periodikotasuna	Ekintza exekutatzeko frekuentzia azpimarratzen du. Urtetakoa, hainbat urtetakoa edo etengabekoa izan daiteke.
Aurrekontua (€)	Ekintza exekutatzeko aurreikusten den kostua da.
Adierazleak	Ekintzarekin lotutako adierazleak dira.
Gauzatzearen kontrola	Ekintzaren aurrera egina deskribatzen du. Hau da, ekintza hasteko, hasita, aurreratua edo bukatua dagoen.
Erakundeak eta eragileak	Ekintza gauzatzeko arduradunak dira.
Finantzaketa iturriak	Ekintza gauzatzeko ikusten diren diru-iturriak dira.